



ZIRKULARRA: UDALTZAINEN EGONKORTZE PROZESUAK

Alkate jauna, alkate andrea

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea aplikatzearen ondoriozko prozesuei dagokienez, dagozkien udaltzaingoetarako eskainitako plazei buruz, honako hau jakinarazten dizuegu:

1.- UDALTZAINGOAK FINKATZEKO ETA EGONKORTZEKO PROZESUAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRI OROKORRAK ETA ESPEZIFIKOAK ONARTZEA

Gogorarazten da **udal bakoitzak Udaltzaingoko lanpostuetarako** sendotze-prozesuak (6. eta 8. xedapen gehigarriak - lehiaketa) eta egonkortze-prozesuak (2. artikulua - oposizio-lehiaketa) arautuko dituzten **oinarri orokorrek eta espezifikoak onartu behar dituela aurtengo abenduaren 31 baino lehen.**

Segurtasun Sailak eta udalerriek aurreko urteetan elkarrekin egindako deialdien bidez egindako lanari esker, 20/2021 Legea dela-eta eskainitako plazen kopuruak udaltzaingoetako kideen eta finkatu beharreko enplegatu publikoen guztizko plazen ehuneko txikia izatea suposatu du. Prozedura hori finkatuta badago ere, prozesu horren barruan plazak eskaini dituzten **udalek ezin izango dituzte prozesu bateratu horien ohiko mekanismoak erabili**, 20/2021 Legetik eratorritako prozesuak apartekoak baitira.

CIRCULAR: PROCESOS DE ESTABILIZACIÓN DE POLICÍAS MUNICIPALES

Sr. Alcalde, Sr. Alcaldesa

En relación a los procesos derivados de la aplicación de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público en relación con las plazas ofertadas para sus respectivas Policías Locales, les informamos de lo siguiente:

1.- APROBACIÓN DE LAS RESPECTIVAS BASES GENERALES Y ESPECÍFICAS REGULADORAS DE LOS PROCESOS DE CONSOLIDACIÓN Y ESTABILIZACIÓN DE LAS POLICÍAS LOCALES

Se recuerda que **cada Ayuntamiento** debe de **aprobar las Bases Generales y Específicas** que van a regular los procesos de Consolidación (D.A. 6 y 8 - Concurso), así como las de Estabilización (Art. 2 Concurso-Oposición) **para sus plazas de la Policía Local antes del 31 de diciembre del presente año.**

El trabajo realizado mediante las convocatorias conjuntas entre el Departamento de Seguridad y los municipios en los años anteriores ha permitido que el número de plazas ofertadas con motivo de la Ley 20/2021 suponga un porcentaje reducido de los efectivos de las Policías Locales y del número total de plazas de empleados públicos a consolidar. Pese a contar con este procedimiento ya consolidado, **los ayuntamientos** que han ofertado sus plazas dentro de este proceso **no van a poder recurrir a los mecanismos habituales de estos procesos conjuntos** dado el carácter extraordinario de los procesos derivados de la Ley 20/2021.

2.- EPAIMAHAIK ERATZEA ETA ONDORENGO PRESTAKUNTZA IKASTAROA

EUDELen, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailburuordetzaren eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren arteko kudeaketan ondorioz, erabaki da dagozkien hautaketa-prozesuetako **epaimahaiak osatzeko langileak udalek izendatuko dituztela** prozesu bakoitzean. Langile kualifikatu nahikorik ez badute, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak beharrezko **gaikuntza emango die** langileei hautaketa-epaimahaiari dagozkion eginkizunak bete ahal izateko.

Era berean, **Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia arduratuko da** 20/2021 Legearen esparruan plazak eskaini dituzten udalek onartutako eta argitaratutako oinarrien arabera dagozkien hautaketa-prozesuak (lehiaketa eta lehiaketa-oposizioa) gainditzen dituzten langileentzat **prestakuntza-ikastaroa (online) egin eta gainditu izana antolatzeaz eta egiaztatzeaz.**

Hori guztia jakinarazten da, dagozkion ondorioak izan ditzan, Bilbon, 2022ko abenduaren 7an.

2.- CONSTITUCIÓN DE LOS TRIBUNALES Y CURSO DE FORMACIÓN POSTERIOR

Fruto de las gestiones entre EUDEL, la Viceconsejería de Seguridad del Gobierno Vasco y la Dirección de la Academia Vasca de Policía y Emergencias se ha acordado que el **personal para conformar los tribunales** de los correspondientes procesos selectivos **será designado por los Ayuntamientos** en cada uno de sus procesos. En caso de no contar con personal cualificado suficiente, el personal **recibirá la habilitación necesaria** por parte de la Academia Vasca de Policía y Emergencias para poder ejercer las funciones inherentes al tribunal de selección.

Asimismo, la **Academia Vasca de Policía y Emergencias será la encargada de preparar y acreditar la realización y superación del curso de formación (on-line)** para aquel personal que supere los correspondientes procesos de selección (concurso y concurso-oposición) de acuerdo con las Bases aprobadas y publicadas por cada uno de los Ayuntamientos que hayan ofertado plazas dentro del marco de la Ley 20/2021.

Lo cual se comunica a los efectos oportunos en Bilbao, a 7 de diciembre de 2022.